

Kitto!

...eta

787 zkia. 2011-XII-23

ASTEKARIA

TOKIKOM



Horra, horra, gure Olentzero...

*...pipa hortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxoekin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.*

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

Gabon

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h






Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

zeriontsuak!!!

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALA:

J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen al-
dikarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusker

IGESIXARI EMON.- lhes egin, hanka egin. "Kontua egitteko orduan, eteko-andria sukaldian zan artian, igesixari emon zetsan eta nun danik bez".

IJADA.- Arrainaren erdiko aldea. "Atunaren ijadia erreta, onena".

IJELA.- Ijezten duen behargina. Y-rekin ahoskatzen da. "Laminador". "Ijeliak esan gura dau ijeztu edo irunduten dabela burdiña".

IJEZTU.- Burdiña laminatu. Forjatu. Y-rekin ahoskatzen da. "Ola-ijeliak burdiña biribildu eta moltsotuta daguana dakar mehatuaz; eta esan giñai ijeztu edo iruten dabela burdiña".

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mail: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Datorren astean alea egun bat lehenago kaleratuko da; hau da, hilaren 30ean izan beharrean, **hilaren 29an (eguna)** izango duzue zuen buzoietan.

Bestalde, **2012ko lehen alea urtarrilaren 13an** izango da kalean.

Urte berriko lehenengo barixakua Errege Eguna da eta ez da alerik izango.

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Mina ona da; gorputzaren babes neurri gisa, adibidez. Eskua suaren ondoan jartzen baduzu, berehala kenduko duzu: hori min ona da, alarma lanak egiten dituen. Bizitza bera ezin da ulertu minik gabe. Bada jendea mina sentitzeko gai ez dena eta ohiz kanpoko gaixotasun hori dutenak ez dira normalean 30 urte baino gehiago bizitzen. Zergatik? Ebaki bat egin eta minik ez badu, ebaki hori ikusi arte medikuarengana ez delako joango; edo peritonitisaren mina sentitzen ez duenak bizia jokoan jarriko duelako"


(Antonio Ferrer-Montiel, biologo molekularra)

"Umeen amnesiari dagokionez, alde handiak daude kultura batetik bestera. Esaterako, europarrak eta amerikarrak denboran urrutirago joan daitezke asiarrrak baino: azken horien kasuan euren lehenengo oroitzapena 4'8 urtetan kokatzen da, batazbeste. Zeelanda Berriko maorien kasuan, bestalde, gutxi gorabehera 2'7 urtetik aurrerakoa gogoratzen dute; azken horiek mendebaldirrek baino hainbat hilabete gehiago egiten dute atzera. Gurasoen eragin zuzena nabaritzen da gogoratze kontu horretan"

(Patricia Bauer, Emory Unibertsitateko ikertzailea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko
8.442.616
datua

eurokua da Eibarko udalaren zorra Diputaziñuaren azken datuetan jasota daguean; iaz zorra 6.788.564 eurokua izan zan eta 2009xan, barriz, 3.501.623 eurokua.

Presuen aldeko baraualdixa

BESTE HERRI BATZUTAN EGINDAKUAREN BIDETIK, GURIAN BE BILDUKO ZIÑEGOTZIXAK 24 orduko baraualdixa egiñ eben aurreko astian, eguenetik barixakura, presuen eskubidiak bete deixen eskatzeko. Barixaku eguardixan udaletxe parian egindako alkarretaratzia aprobetxau eben Igor Aldalur, Leire Abanzabalegi eta Josu Kristobal baraualdixan parte hartu eben ziñegotzixak euren aldarrikapenak azaltzeko: dispersiñuarekin amaitzia, Euskal Herriratzia eta gaitotasun larrixak dittuenak eta



Barixaku eguardixan elkarretaratzia egiñ eben udaletxe atarixan. / EKHI BELAR


zigorra bete dabenak askatzia. Bide batez, 2012ko urtarillaren 7xan euskal preso politikuaren eskubidien alde egingo dan manifestaziñuarekin bat egittera animau nahi dittue he-

rrittarrak, "ezbardintasun politiko guztien gaiñetik danon artian giza eskubidien aldeko urratsa emon eta herri honek iñoiz ezagutu daben mobilizaziñorik haundixena osatzeko".

Euskal Herriko industriari errepasua

MARIO ONAINDIA FUNDAZIOAK ANTOLATUTAKO EKITALDIXAN, AURREKO ASTIAN Javier Iza-Goñola Geografixa eta Historixan doktoreak egiñ eban berba Portalean. Ekonomixaren historixan aditua dan Iza-Goñolak dokto-re tesixa

Alfa enpresari buruz landu eban oin dala urte batzuk eta bere berbaldixan XIX. mende amaieran hasi eta 1980 inguru-raiñoko errepasua emon zetsan Euskal Herriko industriari, bere gorabehera garrantzitsuenak gogora ekarri eta azalduta.



Iza-Goñola aditua da industriari eta ekonomixari lotutako gaixetan. / LEIRE ITURBE

Itziar Etxebarria EHUko Aldezle izendatu dabe

AURREKO ASTIAN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KLAUSTRUAK ITZIAR ETXEBARRIA BILBAO eibartarra aukeratu eban Aldezle, babes haundixarekin (132 boto alde, 22 zuri eta 6 baliogabeko). Ibaetako kanpuzian Psikologixa irakaslia da Etxebarria eta sortu barri daben unibersidadeko defendatzailliaren figuraren kargua bost urtez beteko dau. Unibersidadeko bere ibilbidiari errepasua emoten hasitta, Aldezle izendatu barrixak 1981ian ekin zetsan klasiak emotiari eta 30 urte honetan espezializatzen juan da jokabide prosozial eta altruistan faktore pertsonal eta familiarrak



daken eragiñaren gaiñeko ikerketan eta baita moralarekin lotutako emozioñuen ikerketan be. Kargu barrixaren zeregin nagusixa unibersidadeko jardunarekin zerikusixa daken gatazkak konpontzia izango da.

Udal tasak %3 igoko dira


MARTITZENEKO PLENUAN GOBERNUTALDIAK 2012KO UDAL TASAK %3 IGOTZEKO PROPOSAMENA onartu eben, Bilduk horren harira tasen igoeria progresibua izateko Bilduk egindako proposamena baztertuta. Eibarko Bilduko ziñegotzixak, Gipuzkoako Foru Aldundixan eta Donostiako Udalian lortu dabennaren adibidiari jarraituta, Eibarren be politika fiskal progresibuagua lortzeko aukeria badaguala pentsatzen dabe, baiña plenuan euren proposamena atzera botako ebela aurreikus-

tta, datorren urtiari begira baztertu daben aukeria 2013an errealidade bihurtzeko biharrian segiduko dabela aurreratu dabe. Miguel de los Toyos alkatiak, bestalde, plenuaren aurretik, astelehenian azaldu nahi izan zittuan Bilduren proposamenari ezezkuia emoteko arrazoiak: "Tasen inguruko justizia sozialaren alde biharrian dihardugu urtietan. Baiña Udalak eskintzen dittuan zerbitzu guztiak defizitarixuak dira, sortzen dabezen gastuak hermitarreri kobratzen jakuenarekin pagatzeko modurik ez dago". Edo-

zelan be, "Udalak dirua batzeko ahalmenaren eta diru-premiñian daguezen famelixetan bizi daben egoera larrixaren artian oreka" billatzen dabela argittu nahi izan eban. Udal tasak "izoztuta" egon dira 2010. eta 2011. urtietan, 2009. urteko kopurueri eutsita, baiña urte barrixan erabiliko dittuen udal aurrekontuetarako diru-sarrerarako Konsumorako Prezio Indiziari jarraitzen detsan %3ko igoeria aplikatzia beste biderik ez eguala pentsatzen dabe igoeriaren alde agertu diran ordezkari politikuak.

Errebalerako planekin aurrera

MARTITZENIAN EGINDAKO PLENO BEREZIXAN, AURREIKUSITTAKUARI JARRAITUTA, Errebaleko parking publikuaren munizipaliziñua onartu eben PSE, EAJ eta PPren aldeko botuekin eta Bilduren kontrakuekin. Errebaleko merkataritza-zentrua egiteko aurrerapausua dala azaldu dabe agintarixak, *"etorkizunian edozeri ekiteko biharrezkua dan konzesiño administratibua egitteko ezinbestekua dalako onartu barri daben hori onartzia"*. Miguel De los Toyos alkatiaren berbetan, *"ez da sekula egon Errebaleko besteko debaterik eragiñ daben beste proiektorik"* eta *"hauteskundietan alderdi bakotzak Errebaleko zer egin nahi eban azaldu ebal"* gaiñeratuta, horren ostian *"herritarrek bozkatu egiñ ebal"* esanda erantzun nahi izan zetsen herritarren parte-hartzia biharrezkua dala eskatzen



Parkiñaren munizipaliziñua ezinbestekotzat jo dabe aurrera egiñ ahal izateko. / EKHI BELAR

dabeneri. Horren aurrian, Bilduk alkatiari oiñ hurrengo eskatutakua atzera be gogora ekarri nahi izan eban plenuan, *"herritarren parte-hartze prozesua hastia"* oindiok be biharrezkua ikusten dabela argi lagata. Bilduko ordezkariaren berbetan, *"agian konponbidia ez da bertan merkataritza zentro bat egittia, kultura eta aisialdirako gunia baiño"*. EAJ-ko Iñaki Zuloagak, barriz, *"Eibarrek ideien zaiñ egoteko denporarik ez da-*

kala" eta *"berehalako konponbidia"* bihar dittuala azaldu eban. Bestalde, MAIXA Herritarren parte-hartzerako alkatiak idatziz plazaratu dau gai honen gaiñian dakan iritzixa: *"Proiektua herritarren parte-hartze bidezko hausnarketa prozesu batian murgiltzeko premiñia"* argi ikusten dabe eta hauteskunde kanpaiñan *"herritarren parte-hartziaren baliagarrittasunaz"* entzundako promesak praktikan jartzia nahi dabe.


a u t u a n

JAIME URRUTIA

Urtarrillaren 7xan
22.00etatik aurrera
Jaime Urrutia kontzertua
emoten egongo da
Coliseo antzokixan,
"Al natural" izenburuarekin
egitten diharduan biraren
barruan, 80ko kanta
ezagunak eskintzen.

OSTIRALAK DEBEGESAN

Datorren urtian jarraipena
izango dau Ostiralak
Debegesan ekimenak.
Enpresa eta ekintzaillak
erakartzia helburu dakan
programan 465 lagunek
hartu dabe parte aurten
antolatatu dittuen
23 jardunaldixetan.




Banatu dogu Gabonetako otarra

AURREKO ASTIAN EGINDAKO ZOKKETAN 1.491 ZENBAKIXAK URTEAN EBAN Gabonetako otarra etxera eruateko eta, horren barri emon eta segiduan, astelehenean bertan ...eta kitto! Euskara Elkarteko bulegora jo eban erretatuan pozarren ikusten dozuen numero irabazliaren jabia, sarixa jasotzera. Otarrak dittuan jateko eta edatekuak ondo baiño hobeto aprobetxauko dittuela dudarik ez dakagu. Zorionak eta on egin!

235.000 euro merkataritzarendako


EUSKO JAURLARITZAK EIBARKO UDALARI ETA EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIARI merkataritza indartzera bideratutakua aurrera eruateko diru-laguntzak emotia onartu dau: batetik, Udalak 190.000 euro jasoko ditu Estaziño kalia oiñezkuendako erakargarrixagua egitteko biharretarako eta Pagaegi eta Estaziño kalien bittartian aparkalekua eraikitzeko. Eibar Merkataritza Gune Irekiak, barriz, urte honetan egindako jarduerak pagatzen laguntzeko 43.875 euro jasoko ditu.



PILAR MIGUEZ CID

"Izar bat piztu da zeruan"

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



...eta Euskara E Gabon KATAI



SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
11,80 euro



KATEA:
9,45 euro

LAUBURU
ZINKILIKARIOA:
15,80 euro

EH ZINKILIKARIOA:
23,60 euro



NAGUSIENDAKO
KAMISETAK (S-M-L-XL-XXL):
25 euro




UMEENDAKO
KAMISETAK (4 URTETIK 12RA):
20 euro



BABEROA:
15 euro




AMANTALA
(LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4



ABANIKOA:
5 euro

ZIBA:
7 euro



PELLO ZABALA HIGROMETROA:
33,50 euro

ARGAZKI MARKO ERTAINA:
14 euro

ARGAZKI MARKO HANDIA:
16,50 euro



KITTO-AMANTALA:
10 euro






KITTO-AMANTALA:
15 euro

Etorri opari zerrenda egitera. Egunero, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulego
ASTELEHENETIK BARIKAKURA, 10.00etatik 13.00etara / 1

IKUSI, AUKERATU eta EGIN





kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

DISKA ETA DVDak



Katalogoak dituen irabaziak euskera sustatzen erabiliko ditugu


TIRAGOMA:
3 euro



MAHAI-GAINEKOA:
11,60 euro



KATILU TXIKIA:
7 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro



eta
kitto!
Euskara Elkartea

KARRIKIRI
EUSKARA ELKARTEAREN KUTXAKO

goan (Urkizu, 11)
6.30etatik 19.30etara

ENKARGUA!



**AZKEN
EGUNA**
urtarrilak 2

Ia hilabete darama itxita Arrate Hotelak. Azaroaren 28an itxi zituen atean, baina oraindik argia ikus daiteke barruan. Langileek lanean jarraitzen dute Lanbide Delegaritzak euren etorkizuna zein izango den erabaki arte. "Barre egiten dugu negar ez egitearren. Zer erremedio! Aurrera egin behar dugu", diote.

OHE BARIK Arrate Hotelean

Ez dute nahi euren izena eman, "nahiago dugu langilegoraren izenean berba egin, ez pertsonalizatze-ko". Kokoteraino daude Arrate Hoteleko langileak, "zapuztuta gaude, animoak lurrean ditugu". 8 lagun dabilta gaur egun lanean hotelean, "20 gara EREan sartuta gaudenak, baina batzuk oporrak zituzten oraindik hartzeko. Hala ere, urriaren 31n aldi baterako 11 langile kaleratu zituzten".

Irakurtzen, telefono deiak hartzen, garbitzen, posta jasotzen, euren artean berriketan edo sabaiera begira pasatzen dituzte lanorduak hotelean. "Baina hotelaren arduradunak faxez eginbeharrak bidaltzen dizkigu: gelak garbitzeko, hotela txukuntzeko... eta guk egiten ditugu. Inozoak gara! Ez dugu kobratzen, kaleratu nahi gaituzte eta eginbeharrak egiten ditugu". Kanpoko atek itxita edukita, ez dute bezero-rik. Ezta igogailurik ere, "gasa ere amaitzear dago eta ea zer gertatzen den argiarekin. Ordaintzen ez denez...".


Egunero erreserbak egiteko deiak jasotzen dituztela azpimarratzen dute langileek (eu-

rekin zita egin genuen momentuan ere pertsona batek deitu zuen erreserba egiteko asmoarekin), baina euren ezinezkoa dela erantzuten dute, hotela itxita dagoela. "Horrek ematen digu amorrua, lana badago ere, hotela itxiko dela ikusteak. Erreserba ugari ezeztatu behar izan ditugu, hainbat agentziek hilabeteetako erreserbak zeukaten eginak... lana geneukan etorkizunera begira".

Abuztutik kobratu barik

Hotelaren atek orain dela hilabete itxi bazituzten ere, abuztutik daramate kobratu barik langileek. Hala ere, lanean jarraitu dute ordutik eta bere postuan dihardute oraindik. "Lanbide Delegazioaren erantzunaren zain gaude, ea zer erabakitzen duen".

Hotelaren administratzaileak, Jorge Zamoranok (EREa




Lan ez zela falta eta gestio txarrak eraginda itxi dutela hotela salatzen dute beharginek.



dugu administratzaileak aurkeztutako EREa onartuko dutela, tamalez, baina ezin dugu esperantza galdu".



Hotela itxita egon arren, langileak beharren jarraitzen dute. / EKHI BELAR




"Gestio txarra"

Langileek argi daukate: "gestio txarratik ixten da hotela". Euren berbetan, "jabeak ez zion ordaintzen Gizarte Segurantzari eta bere kontua enbargatu behar izan zuten. Horrela, hotelean ez zen dirua sartzen, ezin zen hornitzaileei ordaindu, guk ere ez genuen kobratzen... Txarrena da lana bageneukala, jendea zebilen hotelean, beraz, argi dago gestioak egin duela huts".


Egoeraren aurrean, langileek deia luzatzen die eibartarrei. "Laguntza eskatzen diegu herritarrei". Miguel De los Toyos alkatearekin ere egin dute berba eta ahal den heinean lagunduko duela erantzun zuela dioite. "Jorge Zamoranorekin berba egin duela dakigu, enpresarietara hotela hartzeko deia luzatu diela ere, baina azken finean hau zerbait pribatua da".

Bitartean, gela hutsen artean, berogailu baten inguruan Gabon aurreko egun hotzak pasatzen dituzte hoteleko langileek, euren etorkizuna argituko duen erabakiaren zain.



Munduko estatu gehixenatariko arduradunak Durbanen (Hegoafrika) orain dela astebete aldaketa klimatikuaren gañian berba egiteko. Neurri haundixenak 2020xan sartzia erabaki eben eta porrotaren irudixa laga dau konferentzixak mundu osuan.

Arduraten zara ingurumena zaintziaz?



LOLI SIMÓN
56 urte
etxeoandria

Etxian neurrixak hartzen dittu ingurumena zaintzeko, birziklatu eta nere esku daguana egitten dot. Halanda be, sahiestu ezin diran gauzak dagoz, adibidez, dendetan erosten dozun produktuak dittuen bilgarrixak. Halako gauzak aldatu egin biharko ziran edo ingurumenera moldatu.



IVAN ALVAREZ
35 urte
peoi espezializatu

Birziklatu eta halako gauzak ahal dan heñian egitten saiatzen naiz. Begittantzen jata gehixago egin biharko zala ingurumena zaintzeko, baiña nik behintzat nere esku daguana egitten dot.


JUAN ANTONIO FORMOSO
63 urte
langabia

Normalian dana birziklatzen dot eta etxian uraren erabilleria be begiraten dot, adibidez. Holan, saiatzen nahiz ahal dan heñian ingurumena zaintzen. Aduratuta nago horren gañian. Atzo irakorri neban plastiko batek 100 urte bihar dittuala desagertzeko.



ANDREA GONZÁLEZ
15 urte
ikaslia

Bai. Etxian paperak birziklatzen dittugu eta hartzen dittugu neurrixak. Egixa da batzuetan ahaztu egitten jatala, baiña gogoratzen dotenian egitten dot. Batzutan amak esaten desta halako gauzak egitteko, baiña normalian egitten dittu.




A B E N D U A						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

U R T A R R I L A						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

O T S A I L A						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				

M A R T X O A						
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	



Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!

2011ko
nkeugluko
eskalintza
...eta kitto! Euskara Elkarte



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairvartea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com
www.etakitto.com

Gabonak gero eta lehenago ailleгатzen jakuz azken aldixan. Kaleko argiak be ipiñitta eguazen gure kalietan sanandresetarako. Eta aste honetan oporrak hartu dittue askok, bai eskoletan eta baitta biharrian be. Ordu mordua izango dittugu hamendik aurrera aisialdi horrekin disfrutatze eta baitta aukerak be: herriko dendarixen alkartiak ahalegin berezixa egin dau bezerueri aukerak eskintzeko. Asmo bera dake Artisauen Azokiak, Guai parkiak... eta txikixen nahixak betetzen ahaleginduko diran Olentzero eta Errege Maguak.



Jaixen girua badago non disfrutau

BARRAKAK, TXIKI-PARKA ETA DESKONTUAK EMGIREKIN

Eibar Merkataritza Gune Irekiaren ekime-
nez eta azken urtiotako martxiari jarraituta,
Gabonak dirala-eta herriko denda eta bestela-
kuetan eskintzen dittuenen salmenta-kopu-
ruak gora egitteko asmuarekin, kanpaiña eta
promozioño berezixak antolatu dittue aurten be.
Beste urte batzuetan egindakuen artian harre-
ra ona izan daben batzuekin batera, barritasu-
nik be gehitu detse oinguan krisi ekonomi-

kuak markauta martxan dagan Gabonetako
kanpaiñiari. Atzo bertan barritasun horren ar-
tian berezixena garatu eben: "**Egun Magi-
koa**" tituluari jarraituta, ekimenarekin bat egin
eben 50 bat dendak normalian baiño geruago,
22.00etan itxi zittuen atiak, "*ohiko ordutegixa-
ren barruan dendarik-denda ibiltzia gatxa da-
kenekin akordautu*" eta, horrekin batera, eros-
ketak azken ordurako lagatzen dittuenak era-
karritta salmentak igotzeko esperantzarekin.
Gaiñera, atzo zeozer erosi ebeneri gasta-

kuaren %20ko balixoko deskontu-txartelak
oparituko zetsazen, **urtarrillaren 5era arte** al-
karteko dendetan horretxek aurkeztuta mer-
kiago erosteko. Eta horrekin batera, herriko 20
bat tabernatan "**pintxo-pote**" dalako promozio-
ña eskindu zetsen bezerueri. Kale animazi-
oña biribiltzeko, gaiñera, **Ustekabe fanfarre-
kuak** hiru orduz jardun eben **kalejiran** gora
eta behera, jai girua zabaltzeko.


Eta beste barritasun garrantzitsuena **Ugan
gimnasiuan** martxan ipiñi daben **Txiki-Par-**

ABENDUA

ABENDUAK 31, zapatua
Kirolkitto!, urteko kirolaririk
esanguratsueni sari banaketa.
12.00etan Portaleko areto nagusian.

URTARRILA

URTARRILAK 1, domeka
Urko igoera, ...eta kitto! Euskara
Elkartea eta Klub Deportiboaren
eskutik. Hamaiketakoa Ixuan.




URTARRILAK 29, domeka

Pantxika eta Txinparta **pailazoan**
ikuskizuna Zurrumuru taldearen
eskutik, **Gurasoak Berbetan**
egitasmoko partaideentzat.
12.00etan Portaleko areto nagusian.

OTSAILA

OTSAILAK 7, 14, 21 ETA 28,
martitzenak
Hasiberrientzat oinarrizko yoga
ikastaroa. 18.30etatik 20.00etara
...eta kitto! Euskara Elkartearen.
Izen-ematea: 12€ (...eta kitto!-ko
bazkide eta berbalagunek 10€).

OTSAILAK 17, barixakua
Kaldereroen kalejira. 20.00etan
Urkizutik irtenda Untzagaraino.
21.00etan aratosteetako pregoia
Untzagako karpan.



OTSAILAK 18, zapatua
Play-back lehiaketa
LH 5-6 mailetako ikasleentzat.
17.00etan Untzagan.

MARTXOA

MARTXOAK 6, 13, 20 ETA 27,
martitzenak
Hasiberrientzat oinarrizko yoga
ikastaroa. 18.30etatik 20.00etara
...eta kitto! Euskara Elkartearen.
Izen-ematea: 12€ (...eta kitto!-ko
bazkide eta berbalagunek 10€).

MARTXOAK 6, martitzena

Illunabarrian barruan Irati Anda
eskalatzailearen "Hamarkada bat
harkaitzen artean" izeneko
diaporama-emanaldia.
19.00etan Portaleko areto nagusian.

MARTXOAK 23, barixakua

Euskal kantu-jolas tailerra
Gurasoak Berbetan-eko partaideentzat,
Esti Gonzalezen eskutik.
17.30etatik aurrera ...eta kitto!
Euskara Elkartearen.


...eta horrez gain:

- Barixakua ...eta kitto! astekaria
- Hilero Txikitto! aldizkaria on-line
- Berbetan mintzapraktika taldeak
- Itzulpenak eta diseinu lanak
- www.etakitto.com



kak osatzen dau: gitxienez 20 euro gastatzen dan bakotxian, ordubetez txiki-parkian musutruk ibiltzeko bonua oparitzeko dabe. **Barixaku arratsaldetan** (17.00etatik 20.30xetara) **eta zapatuetan** (11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30xetara) eskinduko daben zerbitzuak, gaiñera, Gabonak pasauta be jarraipena eukiko dau, **apirillaren 30era arte**. Txiki-parka 2-5 urte bittarteko umiendako pre-paurata dago eta 30 bat ume batera hartzeko ahalmena dauka.

Abenduaren 16xan ekin zetsen kanpaiñia datorren urteko **urtarrillaren 8ra arte** egongo da eta egunotan **Urkizun, Txaltxa Zelaixan eta anbulatorixo pareko parkian** daguazan barraketan ibiltzeko bonuak erosketak egittian duan emoten dittue. Bonuekin musutruk ibiltzeko aukeria eukiko dabe hillaren 23, 24, 26, 27, 28, 29, 30 eta 31n (22xan anbulatorixuan). Bono barik 1'5 euro pagau biharko dabe eta prezio horretan erosi leikez txartelak bonuak erabili ezin leikiazen egunotan be (abenduak 25ian eta urtarrillaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8xan).



Aittatutakuak antolatzeko alkartiak erabilttako presupuestua 50.000 bat eurotakua da eta, hortik aparte, kalietan ipiñitta daguazan Gabonetako argixen gastuak, 55.000 euro ingurukuak, Udalarekin batera pagauko dittue EMGIkuak be.

17 ARTISAU ALKARREKIN EIBART AZOKAN

Aurreko barixakuaz geroztik eta **urtarrillaren 5era arte Eibarko Bizikleta Plazako karpn** martxan egongo da zazpigarren urtez antolatutako Eibart artisauen azokia. Inauguraziñorako ekitaldixan Karmentxu Arrizabalagak jardun eban kantuan. Egunotan azokan euren artisau-lanak salgai dittuenak honetxek dira: Maite Arriaga (margolanak), Marta Irusta (bixixak), Ana Orozko (bisuterixia), Nieves Maidagan (zaharbarritziak), Jone Perales (narrubisuterixia), Eskulan (kristala), Arrate Bidasoro (aromaterapixia), Ahiztak (ehun-gaixak), Izaro (ehun-gaixak), Jose Juan Unzueta (zerramikia), El Telar (enkuadernaziñua), Elena Commere (narrua) eta Juan Carlos (jostai-



lluak). Azokia egunero **11.00etatik 14.00xetara eta 17.00etatik 21.00xetara** zabalduko dabe eta, bestalde, martitzenero (abenduak 27xan eta urtarrillaren 3an) umiendako taillarrak eskinduko dittue 17.30xetan hasitta.

ERREBAL ETA INGURUAN BE

Behekaldian negoziuxia dakenak sarrittan kejuu dira urte osuan antolatzen diran jaialdi eta bestelakuak beti Untzagan egitten dirala pentsatzen dabelako eta, horregaittik, aurtengo Gabonetan eurak be **Errebal, Estaziñ, Arragueta, Ibarkurutzeta eta San Agustín** inguruko denda eta tabernetara jendia erakartzeko jarduera berezixak antolatzia erabagi dabe: atzo eta gaur **Olentzero kalejiran** ibilliko da, trikitilarixak lagunduta eta bereziki horretarako ipiñi dittuen buzoietan gutuna sartzen daben umien artian hainbat opari banatzeko zozketia egingo dabe. Eta beste **hiru zozketa** egingo dittue hillaren 26 eta 29xan eta urtarrillaren 3an, bakotxian 300 euruetako erosketa-txartel bana oparitzeko. 60 bat merkatarik egin dabe bat lehelengoz antolatu daben kanpaiñian.

Eta horrez gain, **Merkatu Plazakuak** be jendia euren era erakarri nahixan 50 euroko gastua egittian hainbat produktorekin betetako **otarra** oparitzen dihardue euren bezeruen artian. Krisixari aurre egitteko laguntasun txikixa ez da ba.

GABONERI MUSIKIA IPINTZEN


Herriko musikarixak hasitta dagoz urterotasoi honetan eskindu ohi diran kontzertuekin. Cielito Musika Bandak eta Usartza Txistulari Taldiak Coliseo antzokixan jardun eben aurreko asteburuan eta **gaur**, barriz, **20.30etatik aurrera San Andres elizan** jardungo dabe Sostoa abesbatzakuak, Jon Zarrabe organistak lagunduta eta kontzertua berian Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakuak be hartuko dabe parte: Eibarko Koru Gazteak ("Oi Bethlehem", "All I want for Christmas" eta "Gospel feast"), Akordeoi Orkestrak ("Gabon hirukote!" eta "Hator hator"), J.B. Gisasola Koruak ("Bi gabon kanta" eta "Gabonetako pout-

pourria"), Ganbara orkestrak ("John Ryan's Polka", "Jingle Bells" eta "Silent night"), Akordeoi Taldeak ("Zulueta", "Udaberrian" eta "Txoriak") eta Triki Taldiak ("Kanta sorta").

OLENTZERO, GUAI PARKIA ETA HIRU ERREGIAK


Umiak gaur esan detse agur eskoliari eta, erregular, egunotako oporrak topera aprobetxatzeko irrikitan dagoz. Aurreko urtiotako esperientzia ezagutzen dabenak sekula egon barik daguazan txixxeri esaten detsen moduan, Astixak **Armerixa Eskolan** kudeatutako **parkian "guai"** pasatzen dabe, bertan daguazan atrakziñuetan zeñ taillarretan parte hartuta. **Astelehenian hasi eta hillaren 31ra arte 11.00etatik 13.30xetara** zabalduko dabe goizetik eta arratsaldian, barriz, **16.00etatik 20.00etara** (31n 19.00xetarako itxiko dabe). Egunero sartzeko bonuak 12 eurotan saldu dittue eta egun bakarrerako txartelak 3'5 eurotan bertan erosteko aukeria be eukiko dau nahi dabenak.

Bestalde, **zapatuan** aillegauko da gurera **Olentzero**, betiko moduan umiendako opari morduarekin: **17.00etan udaletxian** umieri oparixak banatu eta **18.00etan** hasiko dabe **kalejiria**, Pantxika astuak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, J.B. Gisasola Musika Eskolako soiñu ikasliak eta trikitilarixak lagunduta. Ibilbidia, barriz, hauxe izango da: **Untzaga**, Calbetón, Bidebarrieta, **Urkizu**, Errebal, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria **eta Untzaga**.



Eta nobedadia aurtan **Erregien** eskutik aillegauko jaku, **urtarrillaren 5eko kabalgatan**: kalejirarekin hasi aurretik Ipurua Dantza Garaikidekuak, Ipurua Gimnasia Erritmikakuak eta Eibarko Balletekuak eskintzen daben ikuskizunak gero eta jende gehixago batzen dabela ikusitta, Astelena frontoia txiki geratzian aurtan **Ipurua kiroldegixan** egingo dabe **dantzan** umiak eta, beraz, Errege Kabalgatia be bertatik **abiatuko da, oinguan Lambretta** gaiñian.

TEEN-
AJEA



Bere estreinaldia da kamararen atzean. Codigo 2207 laburmetraia zuzentzen dihardu Koldo Carranzak **Bartzelona aldean, izan ere, Ikus-entzunezkoak ikasten dihardu han. 27 urteko eibartarrak aste osoa lanean eman du laburmetraia grabatzen eta orain dena montatu beharko du. Ilusioa, behintzat, ez zaio falta.**

KOLDO KARRANZA, zine zuzendaria:
“Pelikulak egiteaz bizi nahi dut”

- Codigo 2207 izeneko laburmetraia grabatzen diharduzu. Zertan datza?

Izena nahiko arraroa da. Esan nahi dugu zer esan nahi duten ez dakigun kode asko daudela, baina garrantzia daukate; izan daitekeelako gure bizitza jokoan egotea eta guk ez jakitea. Burokrazia eta gauza asko dago, eta guk ez daki-gu kodeek zer esan nahi duten. Konkretuki 2207 kodea energia nuklearrarena da eta laburmetraia horren inguruan kokatzen da.

- Nolako ari da izaten grabaketa?

Grabaketak astebeteko iraupena izango du (elkarrizketa egiteko momentuan grabatzen ziharduten oraindik) eta leku askotan egon gara. 12 minutuko iraupena izango du laburmetraiak, baina gauza asko gertatzen dira. Goizean goiz hasi eta iluntzera arte gabiltza lanean. Esan, gainera, arazo asko izan ditugula. Adibidez, 2. egunean etxe batean grabatu behar genuen eta hodi bat apurtu zen eta grabaketa bertan behera laga behar izan genuen. Gero, ki-

de batzuk igogailu batetan harapatuta geratu ziren. Pentsatzen dut horrelakoak beti gertatzen direla eta grabaketa batean garrantzitsuena dela eguna amaitzean egun horretan grabatu nahi zenuena grabatzea. Zorionez hori lortu dugu.

- Zein da zure lana laburmetraian?

Zuzendaria naiz. Nire asmoa pelikulak egiteaz bizitzea da, baina hau ikasteko egiten dut, nahiz eta benetako zerbait den. Talde ona baldin badaukazu, lana ondo irtetzen da. Oso harreman ona daukagu gure artean, beraz, ederto.

- Nola sortu zitzaizun laburmetraia egiteko aukera? Egiten duzun lehena da?

Lehena da. Karrera amaitzeko proiektua dela esan daiteke.

- Maila pertsonalean zer suposatzen du zuretzat proiektu hau gauzatzeak?

Ikusten duzu asko daudela zure ardurapean eta zure jarra-eredugarria izan behar da, modu batean esatearren. Beti irrifarrea izan behar duzu ahoan, arazoak konpondu behar dituzu... eredu ona eman.

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITURRI
ARDOAK

ITURRI BARRAKA
Euzko Leizola Plaza - Bilbo
945 12 03 07

Artikuluak zein gidoiak urtarrilaren 20ra arte hartuko dituzte

Narruzko Zezen Sarien edizio berria martxan

Urtetako moduan, aurten ere Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen lehiaketa antolatu dute, 25 urtera arteko gazteentzat. Honezkerok XXVII. Ediziora ailegatu den lehiaketan parte hartzerantz animatzen direnak hementik egun batzuetara hasiko dugun urteko urtarrilaren 20ra arteko tarte izango dute.

Betiko martxari jarraituta, adinaren arabera hainbat talde bereizi dituzte antolatzaileek, lehiaketako modalitate bietarako. Artikuluekin lehiatu nahi dutenentzat hiru taldetan banatu-

ko dituzte-partehartzaileak: A taldean DBHko 2. mailara arteko ikasleek aurkeztutako lanak lehiatuko dira eta lehenengo geratzen denak 90 euro eta diploma eta bigarrenak 40 euro eta diploma eramango dituzte; B taldean DBHko 3. eta 4. mailakoek aurkeztutako lanak lehiatuko dira eta lehenengo geratzen denak 110 euro eta diploma eta bigarrenak 50 euro eta diploma eramango dituzte; eta C taldean 16-25 urte bitartekoek idatzitakoak hartuko dituzte eta lehenengoak 140 euro eta diploma eta bigarrenak 65 euro eta diploma eramango dituzte. Kasu guztietan euskaraz zein gazteleraz idatzitakoekin partehartzeko aukera izango dute gazteek eta hizkuntza bakoitzeko sari bana emango dute.

25 urtera artekoentzat antolatutako lehiaketa da.



Sari banaketa, urtero moduan, 2012ko Antzerki Jardunaldietako aurkezpenaren egingo da.

Sari potoloak atal eta maila bakoitzerako

Antzezlanen baterako gidoia idazten dutenek ere euskeraz zein gazteleraz jarduteko aukera izango dute, baina atal horretarako talde bi baino ez dituzte bereziko: A taldean DBHko 4. mailara artekoek aurkeztutako lanak lehiatuko dira eta sari bakarra (150 euro eta diploma) ematea dago aurreikusita; B taldean, berriz, 16 urtetik hasi eta 25 urtera bitartekoek lanak hartuko dituzte eta honetan ere sari bakarra emateko asmoa dute antolatzaileek (185 euro eta diploma). Izan ere, gidoiak idaztera animatzen direnak gutxiago

izanda, behin baino gehiagotan sariren bat eman barik laga behar izaten zuten eta, horregatik, talde bakoitzeko onenarentzat sari bakarra ematen hastea erabaki zuten.

Lehiaketaren inguruko informazio zabalagoa eskuratzeko zein lanak entregatzeko Otaola Hiribidera, Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentrora jo beharko dute (Unibertsitate Laboralera). Telefonoz zerbait argitzea nahi dutenek, berriz, 943208444 zenbakira deitu beharko dute. Irabazleei saria ematea, betiko moduan, 2012. Urteko Antzerki Jardunaldien irekiera ofizialaren testuinguruan egingo dute edizio honetan ere.



**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

EROSKETA

EROSKETA

EROSKETA

EROSKETA

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK

ITZULTZEN DITUGU,

euskaratik gaztelerara,

gazteleratik euskarara,

eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 FAX: 943 202564

GREMIOEN GIDA

NEW 2010

ANTENAK

BALATZ S.L.

Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista

Bidebarrieta, 37
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94


Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ARKITEKTOAK



AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ulmar

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA



GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

GARBIKETAK


Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171



Barrena, 21 - 1. F



TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutzatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO
ALVAREZ**

OROKORREAN

- Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

www.irazabal.net

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

www.irazabal.net

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



ITURGINTZA

 **MUGICA**
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK

 **ACHA** Kristaldegia
ERREKATXU, 3^{an}
KRISTALARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxe: 943 20 39 03

PINTURAK

 **AIXA**

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

 **Nexa Autocolor**

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

 **E Pinturas**
Elias e Hijo, S.L.

**pintura eta estaldura
mota guztiak**

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

 **MALVAR**
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

 **MAYO**

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN



BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRILAGINTZA

 **GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxe. 943 20 86 99

Urtebete da elkarte berri hau sortu zutela eta, dagoeneko, 45 bazkideko taldea osatu dute. Osasuntsu elikatzea dute helburu eta, bide batez, gure produktuei erreparatu eta sasoian sasoikoari eutsi. Euren asmoa jendarteratzeaz gain, gonbitea ere egiten diete interesetatutako eibartarrei.



AZATAPORRUA

Denda arrunta baino gehiago

Azataporrua Eibarren 2010. urtean sortu zen elkarte dugu. Hasieran euren pentsamoldea elikagai ekologikoak erosi eta bazkideen artean saltzera mugatzen bazen ere, Azataporrua ez da, besterik gabe, produktu ekologikoen denda arrunta. Oinarri nagusi bi ditu bertan parte hartzen dutenen jarduerak: alde batetik, ongi eta era orekatuan kontsumitzen ikasi, hasteko gure inguruko produktu osasuntsuei atea irekiz eta sasoian sasoiko kontsumoa bultzatu. Jakina, kontsumo arduratsu horretan produktu ekologikoak hobesten dira. Eta, beste alde batetik, euren kezketako bat da ahal denik eta jende gehiagorengana hurbiltzea.

Euren bokazioa beti izan da, kontsumitzaile arduratsuak izateaz aparte, naturarekin eta oreka biologikoaren alde jardungo duten ekimenen bultzatzaile izatea. Euren diotenez, *“gure apaltasunean, hitzaldiak antolatzen ditugu eta gure hornitzaileen etxaldeen bisitak ere bai”*.

Lehenengo kasuan, *“gure inguruko adituak guregana hurbilduz, produktu osasuntsuak nola prestatu behar diren ikasiko du-*

gu; esaterako, ogi integrala edo bestelako zenbait produktu. Bigarrenekoan, gure hornitzaileen ortu eta ekoizpen lekuetara joko dugu, gure jaten ditugun elikagaiak zer bilakabide izaten duten ikasiz”.

Azataporrua Juan Gisasola kalean dago eta, oraingoz, eguaztenetan izaten dute zabalik euren bezeroentzat, 17:00etatik 20:00ak arte. Bazkideak 12 euro ordaintzen du hileroko kuota eta, trukean, produktu ekologikoen sorta izaten du eskura, salneurri egokian. Galgarien artean, baserriarrek goizean bildutako barazkiak otzara txiki edo handitan. Ortuarekin batera, esne ekologikoa, ogia, arraultzak, ardi-esnea, sasoiaren denean, gazta etabar lortu ditzakete. Fruten artean, inolako tratamenterik jasan ez duten laranja ekologikoak, mandarinak, sagarrak... denetarik jasotzen dituzte. Produktu galkorren artean,


azataporrua@gmail.com

Telefono batzuk:

605711959

67630649 (Junkal)

arantza@dantzan.com



Hainbat bazkidek Itziarko Doniene baserrira egindako bisita.

bestalde, soja, olio eta arrozeko esneak, lekariak eta laboreak (dilatistak, txixirio edo garbantzuak, indabak, arroz integrala, soja, kinoa...).

Urtebetearen harian, 45 bazkideko taldea osatu dute oraingoz eta euren asmoa da bazkide gehiago onartzearena, *“baina, beti ere, gure espirtuarekin bat datorren jendea interesatzen zaigu”*.

Norbaitek elkartearen partaide izan nahi badu, proiektu interesgarri horri indarra emanez eta, era berean, bera ere eragile bihurtuta, azataporrua@gmail.com helbide elektronikora jo dezake. Hor emango diuzete informazio guztia.



Doniene baserrikoak Azataporruaren hornitzaileak dira eta, era berean, baita bazkideak ere.



Kontsumitzaile arduratsuak izatea nahi dute Azataporruaren partaideak.

Eibar Eskubaloiak aurre egin zion eguraldiari ere

ASTEBURU HANDIA ZUEN ESKUBALOI KLUB BERRIAK eta, eguraldiak lagundu ez arren, hainbat ekitaldi burutu zituen. Horrela, multikirolako partiduak jokatu ziren Untzagan; ez, ordea, Eibar Eskubaloi taldeen arteko erakustaldi partiduak. Jolasak eta zozketak ere

izan zuten euren tarteak, DJ Arnoren musikak eta txosnak euren izan zuten moduan. Asteburuko emaitzei dagokienez, senior taldeak 56 gol sartu zituen oraingoan (ia saskibaloiko puntuazioa) eta jubenil mailako taldeak ere garaile izan ziren, kadeteen gehienak moduan.



Katearen Egunak txirrindularien taldeak aurkeztu zituen

ZAPATU EGUERDIAN AURKEZTU ZITUZTEN, KATEAREN EGUNAREN BARRUAN, Euskal Bizikleta KE-ren lizentziarekin aterako den nesken elite UCI profesionalen taldea eta baita Klub Deportiboko mutilen taldea ere, denboraldi berriari begira. Ohikoa denez, Debabarrenaren elastikoa eramango dute talde biek (Kirolgi ere bai nesken kasuan). Bestalde azken urtearen errepasoa egin zuten eta izan zen tarterik abuztuan istripua izan zuen Izaro Lasa omentzeko, taldekideek egin zioten detailearekin.



Taldeek argazkiak udaletxean atera ziren. Hori bai, bateratutako talde guztiena Astelenan.

Eibar B-k Beasain hartuko du Ipuruan

EIBAR KE-AREN BIGARREN TALDEAK PARTIDUA DU BIHAR, 16.00etan hasita, baina Unben izan beharrean Ipuruan ikusi ahal izango dute oraingoan zaletuek. Lehenengo taldeak, bestalde, opor batzuk hartuko ditu, abenduaren 29ra arte.

Hierros Anetxe gero eta liderrago

GASTEIZKO GASTEDI AZKEN SAILKATURI UNBEN 34-0 IRABAZTEAZ GAIN, Zarautz bigarren sailkatuak 12-10 galdu zuelako



Kraft Atco. San Sebastianekin. Donostiarrak aurkari gogorrak bihurtu dira bigarren itzulian eta aurreko jardunaldian Eibarkoekin ere berdintzea lortu zuten, Hierros Anetxeren berdinketa bakarrean. Eibartarren bigarren taldeak 5-31 irabazi zuen Logroñon eta horiek ere lidergoan jarraitzen dute.

Eibarko Kirol Sarien XVII. edizioa egingo da Gabon Zahar egunean

URTEROKO OHITURARI JARRAITUZ, HILAREN 31-N EIBARKO KIROL SARIEN edizio berria egingo da Portalean, eguerdiko 12.00etan hasita. ...eta kitto!-k antolatutako ekitaldian, gure herriko kirol talde guztien lana saritu nahi izaten da eta, espiritu horrekin, modalitate bakoitzean aukeratutakoak bere saria izango du, Esther Galarza herriko artistak egindako zeramikazko figurarekin. Behin sariak banatuta, luntxa izango da.

Bestalde, Urteberri egunerako Klub Deportiboko Mendi Batzordeak eta ...eta kitto!-k antolatzen duten Urko igoeran, Ixuan eskaintzen duten hamaiketako tartean, aurten Armeria Eskolak (100 urte beteko du 2012an) eta Asola Berrik (50 urte beteko ditu) ere kolaboratuko dute.



JACINTA DE LERA FERNANDEZ

(Miguel Valderrey-ren alarguna)

ABENDUAREN 16AN HIL ZEN, 72 URTEREKIN

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

CARLOS ETA LURDES, JOSE ETA SORAIA
AGER, JOKIN, LANDER ETA BENAT

Saskibaloiko talde biak garaile Gabonetako oporrak hartzeko

AZKEN JARDUNALDIA OPA-ROA IZAN ZEN GURE HERRIKO SASKIBALOI TALDEBIENTZAT: hori bai, liderrak estu eta azken jokaldi bati esker irabazi zuen bitartean, Katu Kalek aurkaria egurtu zuen Ipurua kiroldegian. Mondragon Unibertsitatea B izan zen Katu Kalekoen "biktima" (73-42), eibartarrek egindako goitik behe-rako neurketa osoaren ondo-

rioz. Atsedendian markagailuak erakusten zuen 31-22koak etxekoan alde egin zuen nabarmen bigarren zatian eta Alarcón eta Horcajada izan ziren saskiratzaile onenak.

Ruibal, bestalde, 70-69 gailendu zitzaion Andraitzi azken unean lortutako lau puntuko jokaldiari esker. Saillkapeneko lehenak izatearen "zorteak" la-gunduta, Ruibal Alquiler de Ve-



hículos-ek galdu barik jarraitzen du; baina Legazpiko taldea hiru puntuko aldearekin

heldu zen azken minutu erdian. Arnaiz, Polanco eta Azkue izan ziren saskiratzaile onenak.

Bengoetxea pilotariak aurrera egin du Laudion

EUSKADI MAILAN JOKATZEN DEN LAUDIOKO TORNEOAREN XVI. EDIZIOAN, Jon Bengoetxea Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak aurrera egin zuen lehenengo kanporaketan eta final-laurdenetarako sailkatu da. Abadiñoko Amantegi du lagun txapelketa horretan eta, izerdia ondo botata, irabazi zieten Apezetxeak (Goizueta) eta Telletxeak (Tolosa) osatutako bikoteari: 22-16 izan zen azken emaitza.



Aurreko barixakuan, bestalde, Astelenan jokaturako kadete mailako neurketan, Arrillaga-Urionabarrenetxea Klub Deportiboko bikoteak amore eman behar izan zuen Zumaiako Ostolaza-Agirreraren aurrean (11-22).

Olabe xakelaria Espainiako xake azkarreko txapelketan

ESTATUKO 167 JOKALARI BILDU ZIREN BARTZELO-NAKO SANSEKO COTXERES ERAIKINEKO AUDITORIOAN Espainiako xake azkarreko txapelketa jokatzeko, tartean Edu Olabe jokalaria eta Mikel Larreategi epaile nagusia, biak ere Klub Deportiboko ordezkariak. Espainiako nazionalitate duen Ibrahim Khamrakov uzbekistandarrak ira-

bazi zuen torneoa, Gabriel Del Río eta David Ayzaren aurretik, hirurak ere Maisu Handiak.

Julen Garrok, bestalde, modalitate bereko Gipuzkoako txapelketan lehiatu zuen, azkenean 4. postua bereganatuz. Bere aurretik sailkatu ziren Paul Velten (Gros), Asier Etxagibel (Arrasate) eta Hector Sánchez (Azkoitiko Anaitasuna).



Olabe Monica Calzettaren aurkako partidaren azken hau Espainiako emakumezkoen txapelketa izandakoa dugu.

Koskor eta Alkidebaren arteko lehia foball-zaletuan

LIDERRAK 33 PUNTU DITU ETA ALKIDEBAK BOST GUTXIAGO. Gabonetako atsedendira helduta, bi horiek dira euren ibilbidean segurtasun handiena erakutsi dutenak eta, azken jardunaldian ere, Koskorrek 3-1 irabazi zion Azkena Kalton-i eta, bere aldetik, 4-2 nagusitu zitzaion Alkideba Teknografik-i. Hurrengo jardunaldia urtarrilaren 7an jokatu da, lehen itzuliaren amaierako partiduekin.



Jacinta de Lera Fernández

(JOSE VALDERREY GURE LANKIDE-OHIAREN AMA)

Abenduaren 16an hil zen, 72 urterekin

**Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi
nahi diegu haren senide eta lagunei.**

...eta kitto! Euskara Elkartea

Zapatu borobila waterpoloko hiru taldeentzat

HIRU TALDEEK IRABAZI ZUTEN ETA, HORRELA, BAKOITZAREN MULTZOETAKO goiko postuetan daude hirurak. Lehen taldeak 7-14 irabazi zuen 1. mailatik jaitzitako Hernaniren igerilekuan eta, bost jardunaldi jokatuta, sailkapeneko bigarrenak dira. Kadete mai-

lako taldeak 13-8 irabazi zion UPNA-ri (Universidad Pública de Navarra) Urkizun eta gero eta sendoago dago 2. postuan, Liga Nazionalako azken fasean parte hartzeko aukerei eusteaz gain. Infantilek ere irabazi egin zuten Orbean (17-9 Oiasso Bidasoari) eta liderrak dira.



Asperen bikoteen arteko jaialdi polita domekan

BINAKAKO TXAPELKETA-REN LEHEN JARDUNALDIAN GALDU ARREN IRUJOBARRIOLA bikote "ahalguztidunari" zailtasun asko ipini zion Titinek eta Merino II.ak osatutakoak. Aritz Lasak eta Zubietak osatutakoa ez zen atzean geratu eta, borroka emateaz gain, ondo irabazi zion Xala-Laskuraini. Oraingoran erroiarren eta Urretxoko eta Etxarriko pilotarien arteko lehia izango da domekako jaialdiaren partidu nagusia, erremate politikak ikusteko aukera paregabea. Jaialdia has-teko, Olazabal-Merino I.a eta Mendizabal III.a-Zabaleta biko-




Aitor Zubietak binakako txapelketa irabazi zuen Xalarekin 2010ean.

teek neurtuko dituzte indarrak eta, amaitzeko, bestalde, Gorca-Larrinaga eta Jaunarena-Arruti bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Judo Kalamuakoeak sasoi betean jarraitzen dute

ASTEBURUAN ESPAINIAKO KOMITE OLINPIKOAREN EGOITZAN EGIN ZEN ESPAINIAKO JUDO FEDERAZIOAREN galan jiu-jitsuko gerriko beltza 4. dan maila eman zitzaion Manu Agirreri, Eibarko prestatzailea Euskal Herrian kirol horretako maila gorenekoen artean kokatuz.

Zapatuan, bestalde, Iruñeako Mendillorri kiroldegian jokaturako kadete mailako Espainiako Kopan, Kalamuakoe Nekane Muguruzak eta Julen Ramónek hartu zuten parte eta Muguruzak brontzezko domina lortu zuen berriro, horrela 5. postura igoz mailako Espainiako ranking-ean.



EGOITZA NAGUSIA
Bilburiako 20 - beheko, eskumak

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusaketa laber

Egaitzen (Ligero poligonoan)

Artikuluak, materiala eta abar guztiak zabalduak

Koiolek - Eskola - Urtarranako eskola

Euskal Herri osoan ospitaleen bertan 24 ordu

Nazio eta Nazioarteko trilogia

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Mara Mara


MENDI KIROLAK

ARRAGUETA
KALEA, 10
EIBAR
943-702063

Joaquin Sabinaren adiskide zintzoenak dira. Ubedako musikariarekin batera 29 eta 20 urte daramatzate musika munduan Pancho Varona eta Antonio Garcia de Diegok, hurrenez hurren. Hirurok elkarrekin egindako abestiak ekarriko dituzte Coliseora hilaren 29an 22.00etan.

PANCHO VARONA,
musikaria:

"Abestiak elkarrekin egiteak asko batzen du"



- *Zaila izango da, bada, Noche Sabinera bezalako ikuskizun bat egiteko Antonio Garcia de Diego eta zu bezalako musikari aproposago bi aurkitzea.*

Bai, egia esan urte asko daramatzagu hirurok elkarrekin. Joaquinekin 29 urte daramatzat eta Antoniok 20 bat. Orduan, urte asko dira, disko asko egin ditugu, abesti asko konposatu ditugu eta kontzertu asko eskaini ditugu elkarrekin (2.000tik gora kontzertu eman ditut Joaquinekin). Hainbeste abesti elkarrekin egiteak ematen digu Joaquinen errepertorioa jotzeko eskubidea batez ere; egia esan hirurok egindako abestiak dira.

- **Nola sortu zen proiektua?**

Gira batetik bestera ez genuen banatzerik nahi, eszenatokitik jaistea. Publikoari abestien gure bertsioa kantatzea nahi genion eszenatoki txikiago batean. Gira handitik jaitsi eta gira umilago batean sartzeko aukera da, eta, horrela, jendeari, autore eta musikariren bertsioa kantatzea. Abestiaren beste aurpegia erakutsi nahi genuen, baina inongo helbururik gabe. Abestiak nola egin genituen, pasadizoak kontatu... nahi dugu.

- **Zer dio Sabinak guzti honen gainean?**

Askok gustatzen zaio, dibertigarria dela dio! Zoratuta gaudela esaten digu. Izan ere, berak dio: "Tipo bi hauek nirekin 70 kontzertu eskaintzen dituzte eta amaitzean eurek jarraitu

egiten dute atsedena hartu beharrean". Egia esan nik eszenatokiaren bizioa daukat. Bidaiaztea gustatzen zait, gitarra jotzea, ez dut ondo abesten, baina nire erara abestea gustatzen zait. Joaquinek barre egiten du eta adarra jotzen digu. "Zuek lanean diharduzuen bitartean, nik egile eskubideengatik kobratzen dut", dio. Oso giro ona dago gure artean. Abestiak elkarrekin egiteak asko batzen du, horregatik jarraitzen dugu elkarrekin hirurok.

- **Ikusmin handiarekin itxaroten du jendeak zuen emanaldia, Montevideo, Madril eta bestelako hirietan itxaronden bezala. Zergatik ote?**

Argentina-n, Mexiko-n, Uruguay-n, Dominikar Errepublikan... eskaini dugu ikuskizun hau eta onarpena dauka publikoaren artean. Joaquinen oso zale direnentzat emanaldi egokia da, bere ikuskizunen osagarri perfektua delako. Bere emanaldietan ikusten ez den aldea erakusten dugu.

- **Nolakoa izango da Eibarko Noche Sabinera?**

Zati bi izango ditu. Lehenengokoan, Joaquinekin konposatutako abestiak joko ditugu. Eta bigarrenean, bolondresak eskatuko ditugu karaoke antzeko bat egiteko, jaitxo bat. Beti diogu ez dugula nahi ondo abesten duen jendea, hori egitera ausartzen direnak bai-zik. Oso dibertigarria da, nahiko zoroa, denetarik aurkitzen duzulako bertan (barreak).





Bazkide berriak erakartzeko azken kanpainaren aurkezpena. / EKHI BELAR

Matrallako Irratixa itxi egingo da

ERREDAKZIORA BIDLITAKO OHARRAREN BITARTEZ EMAN DIGUTE ADITZERA Matrallako Irratiko arduradunek irrati itxiko dutela eta, Legarreko musikarien egoitzatik 9 urtez FM-ko 102.8-tik musika eta bestelako saioak eskaintzen ibili ondoren, behin-betiko agur esan aurretik Eibarko irrati askeari materiala eta informazioa bidali dietenei eskerrak eman nahi dizkiete eta modu berezian ohartarazi nahi dituzte diskete eta bestelakoak, aurrerantzean ezer alperrik bidaltzen ez jarduteko.

Eibarko Artisten Elkartaren lanak Portalean

URTARRILAREN 8-RA ARTE EGONGO DA EIBARKO ARTISTEN ELKARTEKOEK URTERO PRESTATZEN DUTEN taldekako erakusketa, Portaleko erakusketa aretoan. Gaur egun Eibarko 160 bat artista bazkide diren elkartekoek hainbat kideren artelanekin osatutako erakusketa margolanak, eskulturak eta beste arte-modalitateei jarraituta sortutako artelanak batu dituzte eta ohiko ordutegiaren barruan, martitzenetik domekara bitartean 18.30etatik 20.30etara bisitatu daiteke.



Kezkaren Koko-Marruak Museoan ikusgai

URTARRILAREN 27-RA ARTE "KOKO-MARRUAK" IZENBURUKO ERAKUSKETA EGONGO DA ikusgai Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan). Kezka Dantza Taldearen eskutik 2008az geroztik urtero Aratoste aurretik baserrietan kalejiran ibiltzen diren koko-marruek janzen dituzten erropetako batzuk Museoaren ohiko ordutegian, eguaztenetik zapatara 16.00etatik 20.00etara eta domeketan 10.00etatik 13.00etara ikusteko moduan izango dira.

Euriak ez zuen Abontzatomasak zapuztea lortu

ORAINGOAN EGURALDIA KALEAN EGOTeko EGOKIENA EZ IZAN ARREN, giro eder eta alaian eman zituzten Abontzatomasen 7. edizioa domekan, Egigurentarreneko parkeko arkupeetan, asteburu osoan tarteka-marteka botatzen ibili zen euritik babestuta. Hala ere, antolatzaileek azaldu digutenez, "eguerdian herri osoan entzun ziren suziriak, jaiaren hasiera eta eguraldi txarraren etenaldia iragarrita. Izan ere, gure urteroko enkarguak ondo beteta, eguraldia portatu egin zen eta jaiak iraun



Giro onean ospatu ziren Abontzatomasak. Behean, 2. sariaren irabazleak. / LEIRE ITURBE



zuen bitartean eguzkia ere ikusteko aukerarik izan zen". Bestalde, iragarritakoari jarraituta lote biren zozketa egin zuten antolatzaileek eta saria 0333 eta 8308 zenbakientzat izan zen. Azken zenbaki hori zuenak momentuan erakutsi zuen txartela eta saria ere eraman zuen. Eta 0333 zenbakia duenak, berriz, saria eraman ahal izateko lehenbailehen deitu beharko du 696661274 telefono zenbakira, antolatzaileekin harremanetan ipintzeko.

Presoen artelanak Topalekuan ikusgai

ASTELEHENEAN ZABALDU ZUTEN TOPALEKUAN GAUR GAUERA ARTE, 21.00ak arte

ikusgai izango den "Ametsen txokoan bizi naiz" izenburuko erakusketa, Mikel Zarrabe,

Ibon Muñoa, Aniaiz Ariznabarreta eta Igor Maiora preso eibartarren lanekin. Inaugurazio ekitaldian bertan, gainera, erakusketari izenburua ematen dion Ibon Muñoaren lehenengo liburua aurkeztu zuten. Ateramiñek argitara eman duen olerki-liburua aurkeztera Mitxel Sarasketa etorri zen eta ekitaldian Simone Begiristainek eta Jesus Mari Gisasola "Trunboik" Muñoaren liburuan jasota dauden hainbat olerki irakurri zituzten. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik, 19.00etatik 21.00etara.



Gaur gauera arte daude ikusgai Muñoa, Ariznabarreta, Maiora eta Zarraben lanak. / EKHI BELAR

laburrak

PORTALEA ITXITA

Gabonak direla eta, Portalea kultur etxea itxita egongo da bihar eta etzi (hilak 24 eta 25ean) eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an.

GABON-GAU MEZA


Urteetan egin dutenari jarraituta, Azitaingo elizan Gabon gaueko meza ospatuko dute gauerdian (00.00etan) eta eibartar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

KALEETAN KANTUZ

Datorren asteko barixakuan, hilaren 30ean, Kaleetan Kantuz-ekoak aurtengo azken ekitaldia izango dute: 19.30etan Untzagatik irten eta kalejiran joango dira San Andres eliza ingururaino, Eibart artisauen azokako karpa barruan emanaldia eskaintzeko.

YOGA IKASTAROA


...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta, hasiberrientzako oinarrizko yoga ikastaroa egingo da otsailaren eta martxoaren martitzenetan. Klaseak 18.30etan hasiko dira eta 20.00etan amaituko. Izen-emateak ...eta kitto!-n egin daitezke eta prezioa 12 eurokoa da (10 euro bazkideen eta berbalagunen kasuan)



JOSE M^a IBARRA GOIKOETXEAren
1. URTEURRENA (2010-XII-25)

*Zure falta egunero izan dugun.
Bidea argitzen dizugu.*

ZURE FAMILIA



Bere lehen eleberria idatzi du Koldo Zuazo idazle, unibertsitateko irakasle eta hizkuntzalariak. 'Neure buruaren alde' da eibartarraren lanaren izena eta Martin Garaigordobilen abenturak kontatzen ditu bertan. Gasteiz, Sevilla, Cadiz eta Hego Ameriketara denetarik pasako du Martinek.

KOLDO ZUAZO,
idazlea eta hizkuntzalariak:

“Literaturak mundu berri bat sortzeko aukera ematen du”

- Hainbat liburu kaleratu dituzu aurretik, baina hau da lehen nobela. Nola animatu zinen idaztera?

Kasualitate asko gertatu dira. Alde batetik, Arabako euskera aztertzen jardun dut luzaroan eta, horretan nenbilela, hango albiste asko ezagutu ditut, gehienbat XVI. mendekoak. Bestalde, Ameriketako euskera aztertzen ere jardun dut eta, horri tiraka, euskaldunak Ameriketara egindako migrazioen gaineko gauzak irakurtzen hasi nintzen. Hasieran, XIX. mendeko kontuak irakurri nituen, baina, pixkanaka, gero eta gorago igo, eta XVI. mendera heldu nintzen. Eta sasoi haretako istorio bi ezagutu nituen: bata, Espainiako konkistatzaileak kontatutakoa eta, bestea, Indietan bizi zirenean. Gai interesantea begitandu zitzaidan eta, harrezkero, horren gainean eskura etorri zaidan guztia irakurtzen ahalegindu naiz. Eta horrela sortu zitzaidan zeozer idazteko asmoa.

- Alde handia dago aurretik egin dituzun liburuak egite-tik nobela bat idaztearen artean?

Atseginagoa da literatura egitea. Alde batetik, mundu berri bat sortzeko aukera ematen du eta, gainera, sortzen den

mundu hori norberak nahi duen modukoa izan daiteke. Muga batzuen barruan behintzat, norberaren gustora egin daiteke. Beste alde batetik, berbetearekin jolasean egiteko aukera ematen du. Norberak sortzen ditu elkarrizketak, norberak asmatzen ditu berbak, esaerak... Ez dakit zelako nobela egin ote dudan, baina ni neu, behintzat, gustora ibili naiz horretan jardun dudana bitartean.

- Nolako izan da nobela sortzearen prozesua?

Azken urteotan Kataluniako herri txiki batean eman dut udako opor denbora guztia eta han idatzi dut liburua. Gero, behin oporrak amaituta, denbora gutxi eduki dut behar-rako eta, gehienbat, irakurtzen, dokumentatzen jardun dut tarte horretan.

- Eta maila pertsonalean zer izan da zuretzat eleberria idaztea?

Nobela euskera batuan idatzi dut, baina XVI. mendean euskera baturik ez zegoenez, berbak eta esapideak euskalkietatik hartu ditut



Hasteko, gauza mordo bat ikastea. Ez nekien zelakoa zen Ameriketako herrietako kultura eta bizimodua. Liburuetan ez ezik, bertatik bertara ere ikusi dut zeozer. Esate baterako, Mexiko ezagutzerakoan, liluratuta geratu nintzen. Liluratuta maiek eta aztekek eduki zuten kultura eta zibilizazio maila ikusita.

Beste alde batetik, berriz, gauzak idazteak hausnartzeko eta gogoeta sakon samarrak egin beharra eskatzen du eta horrela ere asko ikasi dut. Eta, hirugarrenik, berbetarekin jolas egitea eta berbetari bide berriak zabaltzea oso gustokoa dut. Horixe da nire ofizioa eta nire afizioa.

- Gasteizen kokatzen da nobela, XVI. mendean. Nolako abenturak bizi ditu Martin Garaigordobilek?

Gasteizen bertan ez da gertatzen gauza haundirik. Denbora gutxi egon zen han; hiru urte guztira. Eta gainera, gazte zela egon zen Gasteizen: 13 urtekin joan zen Otxandiotik eta 16rekin egin behar izan zuen handik ihes. Orduantxe hasten da, hain zuzen, benetako nobela. Dena dela, Gasteizko bizimodua zelakoa zen argitzen du pixkatxo bat.

- Esan bezala, XVI. mendean

kokatzen da. Imajinatzen dut orduko euskera ez zela gaur egungoa bezalakoa izango. Nabari da hori nobelan?

Bai. Alde batetik, nobela gaur egungo euskeran idatzi dut, baina, tarteka, XVI. mendeko berba banaka bat sartu dut. Gutxi dira eta uste dut laster harrapatzen dela euren esangura. Gehienbat, benetakotasuna emateko sartu ditut. Beste alde batetik, nobela euskera batuan idatzi dut, baina XVI. mendean euskera baturik ez zegoenez, berbak eta esapideak euskalkietatik hartu ditut. Batez ere euskalki bi agertzen dira: mendebaldekoa eta Gipuzkoakoa. Horkoak dira nobelako lagunik gehienak.

- Ameriketara jauzia egiten du pertsonaiak. Berezia zen garai hartan han egiten zen euskara?


Ez dakit. Ez daukagu horren gaineko albisterik.

- Nolako zen euskeraren presentzia Ameriketara garai hartan?


Horren gainean ere ez dakigu gauza garbi askorik, baina ezaguna da behinik behin, estua zela euskaldunen arteko hartu-eman eta, hain zuzen, euskera zen hartu-eman hori estutzeko baliatzen zen tresna-rik esanguratsuenetakoa.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, UNAI, bixar urtebete egingo dozu-eta. Aitxitxa eta amama guztien, osaba-izeben eta, batez be, Danelen partez.




Xorionak, JOANE Ibáñez de Garayo, hillaeren 17xan urte bi bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Marioren partez.




Zorionak, GARI, gaur urtia betetzen dozu-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, EIDER, harañegun zortzi urte egin zenduazelako. Famelixaren partez, laztan haundi bat gure Tomasitarentzat.




Zorionak, AITOR, domekan urtia egingo dozu-eta. Etxekuen eta, batez be, Pabloren partez.




Zorionak, amama JOXEPA, Santo Tomas egunian 90 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EIDER Azkoaga Muga!!! atzo urte bi bete zenduaz-en-eta, Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, NORA, harañegun urte bi egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Ainhoaren partez.



Zorionak, bikote!!! Gure MARKELTxok hillaeren 22xan hillabetia egiñ eban eta tia IRUNEK hogeitta.. Patxo mordo-mordua bixontzat!



Zorionak, IKER, hillaeren 15ian urtiak bete zenduaz-en-eta. MIKEL eta famelixa guztiaren partez.




Eskerrik asko, osaba eta izeko, gure urtebetetzian zoriontzia gaittik. Patxito asko PAULA eta MARTINen partez.




Zorionak, ANDER, gaur bertan urtebete egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren partez.

Zorionak, EIDER, hillaeren 26xan sei urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



zinea Coliseoan

1 Aretoan



"Un golpe de altura"

Zuzendaria:
Brett Ratner

23an: 22.30
25ean: 20.00
26an: 17.00, 20.30
27an: 17.00, 20.00

2 Aretoan




"El niño de la bicicleta"

Zuzendaria:
Dardenne anaiak

23an: 22.30
25ean: 20.00
26an: 17.00, 20.30
27an: 17.00, 20.00

Antzokian




"Inmortals 3D"

Zuzendaria:
Tarsem Singh

23an: 22.30
25ean: 20.00
26an: 20.30
27an: 20.00

Antzokian



"Alvin y las ardillas 3D"

Zuzendaria:
Mike Mitchell

26an: 17.00
27an: 17.00

horoskopoa

ARIES

Zaindu jaten duzuna. Jaki arinak jaten saiatu zaitez, izan ere, Gabonetako egun berezietan bapo jateko aukera izango duzu.

TAURUS

Familia giroan egun onak igaroko dituzu, baina oso gauza bitxia gertatuko zaizue domekan. Urtero gogoratuko duzuen zerbait.

GEMINI

Ez da aste erraza izango. Gauza asko izango dituzu egiteko, batzuk korrika eta presaka. Olentzerori pilak eskatu beharko zenizkioke.

CANCER

Ez itxaron gauza handirik jasotzea Olentzerorengandik. Ikatzka ez den zerbait merezi duzula uste duzu? Galdetuiozu bizardunari.

LEO

Bereziki gustatzen zaizkizu Gabonak eta igartzen da. Umoretsu zaude, zintzoa ematen duzu... urteko egun guztiak Gabonak izango balira...

VIRGO

Gabon bereziak izango dira zuretzat. Aurereko urteekin alderatuta, guztiz ezberdinak. Dena dela, pozik igaroko dituzun egunak izango dira.

LIBRA

Nabaria da ez zaizkizula Gabonak gustatzen, baina horregatik ez duzu inor izoratu behar. Aspaldian ikusi ez dituzun lagunak ikusiko dituzu.

SCORPIUS

Iazko 12. mahatsa jan berri duzula ematen badu ere, hemen dago jada Olentzero opariak banatzen. Azkar pasatzen da denbora, ezta?

SAGITTARIUS

Barreak, algarak, negarrak... denetarikoa sentimenduak biziko dituzu Gabonetan. Benetan une politik pasako dituzu.

CAPRICORNIUS

Disimulatzen oso trebea izan beharko zara opariak zabaltzerakoan. Bai, zuzen zaude: zurea baino gustu txarragoa duen jendea badago.

AQUARIUS

Eskatzea libre da, baina eskatu duzuna ekartzeko bere zakua tamaina hirukoiztu egin beharko luke Olentzerok. Moldatuko zara!

PISCIS

Gehiegi janez gero, ez dituzu oso Gabon zoriontsuak biziko, gaixotu egingo baitzara. Ematen du ez duzula bestelako egunetan jaten!

Barixakua 23**OLENTZERO**

17.00.- Olentzeroren kalejira, trikitilariak lagunduta. Errebal-lbarkurutze inguruan.

DANTZA

18.00 eta 19.00.- Dance and Smile dantza taldearen emanaldia. El Corte Inglés-aren ate nagusiaren parean (euria eginez gero, areto nagusian).

KONTZERTUA

20.30.- Gabonetako kontzertua, Sostoa abesbatzaren, Jon Zarrabe organistaren eta J.B. Gisasola Musika Eskolako-en (Eibarko Koru Gaztea, Akordeoi Orkestra, J.B. Gisasola Korua, Ganbara orkestra eta Triki Taldea) eskutik. San Andres elizan.

Zapatua 24**OLENTZERO**

17.00.- Olentzerok umeei opariak banatuko dizkie, udaletxean.

18.00.- Olentzeroren kalejira, Pantxika astoak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, J.B. Gisasola Musika Eskolako soinu ikasleek eta trikitilariak lagunduta. Ibilbidea: Untzaga, Calbetón, Bidebarrieta, Urkizu, Errebal, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria eta Untzaga.

Martitzena 27**UMEENDAKO TAILERRA**

17.30.- Birziklaiarekin lotutako artisautza tailerra, umeendako. Eibart Artisauen Azokan (Eibarko Bizikleta Plazan).

Eguaztena 28**ODOL-ATERATZEA**

18.00.- Odol ateratzea, odol-emaileentzat. Gipuzkoako Odol Emaleen elkartearen (Pagaegi, 3 behean).

KONTZERTUA

22.00.- "La noche Sabinera", Pancho Varona eta Antonio García de Diegorekin. Sarrerak: 12 euro (alde zurretik), 15 euro egunean bertan leihatilan. Coliseoan.

lehiaketak

– **Toribio Etxebarria Sariak.**

Gaia: Enpresa ideiak eta proiektuak. Informazioa eta lanak aurkeztea: 2012ko urtarrilaren 7ra arte, www.bicberrilan.com helbidean.

– **Narruzko Zezen Sariak.**

Gaia: Antzez artikulua eta gidoiak. Informazioa eta lanak aurkeztea: 2012ko urtarrilaren 19ra arte, Hezkuntza Esparruan (Egoitza Zentroan), 943208444 telefono zenbakian.

– **"Aratosteak 2012 Eibarren" kartel lehiaketa.**


Informazioa eta lanak aurkeztea: 2012ko urtarrilaren 19ra arte, Pegoran.

HILDAKOAK

- Maxima Lizarralde Ojea. 85 urte. 2011-XII-15.
- Jacinta de Lera Fernández. 72 urte. 2011-XII-16.
- Jose Sáiz Martínez. 95 urte. 2011-XII-18.
- M^a Pilar Miguez Cid. 56 urte. 2011-XII-20.
- Carmen Lasagabaster Padilla. 86 urte. 2011-XII-20.
- Paula Olan Bergara. 92 urte. 2011-XII-21.

JAIOTAKOAK

- Hidaia Abida. 2011-XII-4.
- Jara Larreategi Gómez. 2011-XII-15.



erakusketak

- Abenduaren 23ra arte
"AMETSEN TXOKOAN BIZI NAIZ". Mikel Zarrabe, Ibon Muñoa, Aniaiz Ariznabarreta eta Igor Maiora presoen lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- Abenduaren 30era arte
KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAren erakusketa. *Portalean.*
- Abenduaren 31ra arte
PEDRO ARRIOLAren "Rusia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**en argazki-erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Urtarrilaren 8ra arte
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAren erakusketa. *Portalean.*
- Urtarrilaren 27ra arte
"KOKO-MARRUAK". *Armagintzaren Museoa.*



FELIPE LOIOLA.

farmaziak

- 23, barixakua**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberría, 7)
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 24, zapatua**
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 25, domeka**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 26, astelehena**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 27, martitzena**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
 GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- 28, eguaztena**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 29, eguena**
 EGUNEZ **Las Heras** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 30, barixakua**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak


EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

			1	8				
6	7					1	2	
	3	5	7					
7	2	4			9			
			6			2	4	7
				4	8	1		
5		6					9	4
			6	8				

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Jardifneta kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldia eta komuna. Kalefakzio zentrala etxe guztian. Sartzeko prest. Eguzkitsua. Tel. 688-873807.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, komun bi eta trasteroa. Igo-gailua. Guztiz berritua eta argitsuua. 130 m². Tel. 626-203838.

– Pisua salgai Barrena 7, 1. solairuan. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainua. Egin berria, estreinatu barik. 150.000 euro. Bidark Arkitektura. Tel. 662-086738.

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukaldia eta komun bi. Garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dugu. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 609-901546.

– Pisua alokagai Amañan. 3 logela, egongela txikia, sukaldia, komuna eta balkoia. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 627-819186 eta 600-436615.

– Pisua alokagai Ermuan. Bi logelakoa. Igogailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Honda CBF 500 motorra salgai. 2007 urtekoa. 12.700 km. 3.500 euro. Tel. 943-530667.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Bittor Sarasqueta kalean. Tel. 685-710962.

– Garajea salgai San Pion. Tel. 943-702231.

3.2. Errentan

– Lokalak alokagai Ubitxa kalean. Behe solairuan eta kanpora begira. 80, 100, 150 eta 200 m²koak. Tel. 617-688311. Maria.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Ardantzan (Arrate Bide, 2). Handia eta berria. 105 euro. Tel. 647-952677.

– Marradun garajea alokagai Ardantzan (Arrate Bide, 2). Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.

– Ileapaindegi berria alokagai arazo pertsonalengatik. Prezio onean. Tel. 667-806737.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-555040 eta 943-127018.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 608-376387.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.

– Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko. Tel. 669-068439.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko. Tel. 671-742142.

– Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-861846.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako lanetarako. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-798284.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 618-050902.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauetan ere. Tel. 650-386345.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228 eta 943-531516.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko: orduka, asteburuetan... Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da etxez-etxeko laguntzarako eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-205039.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 628-789789 eta 943-208261.

– Pertsona nagusia eskaintzen da nagusiekin lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 680-973549.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta mekanizatueta edo pintore lanak egiteko. Tel. 656-781743.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia baterako. LHtik Batxilergo arteko klaseak emateko. laneskaintza akademia@gmail.com

– Akademiarako irakaslea behar da. Tel. 652-763264.

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak (Matematika, Ingelesa, Euskara) ematen dira. Kurtsoaren jarraipen orokorrak. Talde berriak urtarrilean. Tel. 620-720953.

– Kitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Metodo erraza eta dibertigarria. Adin guztietarako. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Tableta grafikoa salgai. Wacom Intuos 4L, berri-berria. 340 euro. Ezaugarriak: wacom.eu orrian. Tel. 943-121891. Gaizka.

6.2. Eman


– Pegoran jartzeko 17 buzoiko lotea oparitzen da. Egoera onean. Marroi kolorekoak. Tel. 617-688311.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Asteburuan pailazoan saioetako batean peluxeak hartza agertu zen. Jabeak ..eta kitto!-tik pasa daitezke.

5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**




**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK




**San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR**



Zerionak eta urte berri on
Felicidades y próspero año nuevo
Merry christmas and happy new year
Buen natale e felice anno nuovo
Joyeux Noël et bonne année
Frehe Weihnachten und ein
gutes neues Jahr

is INSTITUTE OF LANGUAGES SERVICES

Azken Auzoa, 1 / Uspiz-Zabarra, 12 Beheak, Eibar - Tel: 943 744 040 - email: info@is.es
www.is.es



Gabonetan gozatu EIBAR-en erosten

BARRAKAK eta TXIKI PARK DOAN

Anbuatorioa - Urktzu

EIBARRI BIALA

ALDORO JARDULARIETZA

ELIZABETH BARRIO

